

IDAZKARI NAGUSIAREN 17/2018 TXOSTENA

Gaia: Administrazio Orokorreko Teknikariaren plaza eta lanpostua sortzeko beharrizana

Jurdana Uriarte Lejarraga, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak onartzen duen Tokiko Entitateen Antolakuntzaren, Funtzionamenduaren eta Erregimen Juridikoaren Araudiaren 173. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera, hurrengo **TXOSTENA** egin dut

Aurrekariak

Lehena.- Bermeoko Udalak 195 langile ditu, Gizsrte Ongizateko Udal Patronatuan 136 langile eta 16 langile Kirol Patronatuan. Guztira: 347 pertsona

Bigarrena.- Langileria sailean 3 pertsona daude, erdi mailako kudeaketa teknikaria eta administrari laguntzaile bi. Hori horrela, gabeziak daude udal langileriaren kudeaketak eta baliabide pertsonaletan egin beharreko zeregin guztiak bideratzeko, lan karga handia delako.

Hirugarrena.- kontratazioa sail ezberdinetatik eramaten da, sail bakoitzat berari dagozkion espedienteak izapidetuz, eta komenigarri ikusten da kontratazioa zentralizatzea, bai irizpide bateratuak izateko, bai kontratazioan espezializatutako baliabide pertsonalak izateko. Are gehiago, beharrizana aregaitzen da indarrean sartu den azaroaren 7ko 9/2018 sektore publikoko kontratazioaren legearen ondorioz dauden betebeharrak eta baldintza berrien ondorioz. Gainera, ezin dugu ahaztu kontratazioko oinarritzko printzipioak errespetatzea eta segurtasun juridikoa bermatzea ezinbestekoa dela.

Laugarrena.- Ondare publikoaren jarraipen eta izapidetza egitea ezinbestekoa da, geure ondasun eta eskubideak eta herritarren eskubideak eta betebeharrak bermatzeko eta betearazteko. Gaur egun daukazkagun baliabide pertsonalak ikusita ezinezkoa da beroiek behar bezala bermatzea.

Bostgarrena.- Bermeoko Udal langile guztien artean 3 Administrazio Orokorreko



Teknikari daude (hirigintzan, antolakuntza eta teknologia berrietan eta idazkaritza sailetan), eta komenigarri ikusten da administrazio orokorreko eskalako eta A1 mailako teknikari bat gehiago izatea, zuzenbidean lizentziatua, udalaren segurtasun juridikoa zein efikazia areagotzeko.

Prozedura

Administrazio Orokorreko Teknikariaren plaza sortzeko eta Lanpostuen zerrendan sortzeko, labur esanda, hurrengo pausuak eman beharko liräteke:

- a) Langileria saileko teknikariak txostena egitea, lanpostu berriaren funtzio posibleak eta zereginak zehazteko eta gaur egun funtzio horiek egiten dituzten lanpostuen zereginak zelan geldituko diren zehazteko; gastua aztertzeke; eta birjartze-tasa kontuan hartzeko, besteak beste.
- b) Lanpostu berriak udal antolaketan eta organigraman izango lukeen ondorioa aztertzea.
- c) Langile Publikoaren oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 34 eta 37.1.c) artikuluek xedatutakoa betetzeko asmotan, negoziazio-mahai orokorrerekin LZPan lanpostua sortzea negoziatu beharko da. Ostera, plantillak ez ditu lanpostuetako oinarrizko ezaugarriak eta lanpostuaren okupaziorako baldintzak zehazten, aurrekontu-antolaketa duelarik xede bakar; horrenbestez, oinarrizkoa funtsa da Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1.a) artikuluekin eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak onartutako Tokiko Entitateen Antolakuntzaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 4.1.a) artikuluekin batera; ondorioz, ez dauka erakunde sindikalekin negoziatzeko beharrik.
- d) Hizkuntza eskakizunaren inguruan, Eusko Jaurlaritzako hizkuntza politikaren nahitaezko txostena eskatzea
- e) Erabaki proposamena egitea
- f) Udal kontuhartzailearen txostena izatea
- g) Idazkariaren txostena izatea

- h) Proposamena Informazio Batzordeko irizpenaren esku uztea
- i) Osoko bilkurako hasierako erabakia gehiago soiluz onartzea
- j) Akordioa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, 15 egun balioduneko epean zehar, interesatuek azter dezaten eta Udaleko Plenoaren aurrean egoki deritzaten erreklamazioak aurkez ditzaten. Akordioa behin betiko onartua izango da epe horretan zehar erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz. Erreklamaziorik aurkeztuko balitz Udaleko Plenoak ebatzi beharko lituzke hilabeteko epearen barruan. (TRLRHL 169.1.art.).
- k) Plantillaren eta LZParen behin betiko onarpena BAOn argitaratzea eta Estatuko Administrazioari eta Erkidegoko Administrazioari helaraztea, 30 eguneko epearen barruan (TRRL 127. art.).

Ondorioa

Laburbilduz, idazkari honek ezinbesteko ikusten du juridikoki indartzea langileria saila, udal kontratazioa eta ondarea. Horretarako, nahitaezko ikusten da gaur egungo antolaketa aztertzea eta Administrazio Orokorreko Teknikariaren plaza zein lanpostua sortzea udalaren funtzionamendu ona bermatzeko eta segurtasun juridiko osoz jarduteko.

Bermeon, 2017ko uztailaren 27an

Idazkari nagusia,

Jurdana Uriarte Lejarraga

Jasota, 2017-07-27

Alkatea,

Idurre Bideguren Gabantxo